



CONSEIL DE DEVELOPPEMENT DU PAYS BASQUE  
IPAR EUSKAL HERRIKO GARAPEN KONTSEILUA

SO!

# etxebizitza habitat

---

Nola geldiarazi Euskal Herriko etxebizitzaren krisia? Garapen Kontseiluak gizarte zibileko eragileak lanean ariarazi ditu, haien begiraden partekatzeko eta proposamen zehatzen egiteko, Etxebizitza alorreko tokiko egitaraua eraiki aitzin. Hemen aurkituko duzue lanen sintesia, begi itxi-ireki batean = *So!*

## DIAGNOSTIKOA

- ▶ **Familien % 70ek** etxebizitza sozialen eskuratzeko eskubidea dute, baina etxebizitza horiek parkearen % 12 biltzen dute, bakarrik.
- ▶ Beha egoteko epea **bi aldiz luzeagoa** da Euskal Herrian.
- ▶ **Familien % 25ek beren irabazien % 39** etxebizitzarako erabiltzen dute.
- ▶ **Lurrari buruzko estrategia** eskas da eta arauzko tresnak ez dira aski erabiltzen (Tokiko Hirigintza Plana, Antolamendu Gibelatuko Eremuak, erosteko lehentasuna, desjabetzea...).
- ▶ **Elkarte sare engaiatua** eta **alokatzaille sozial berritzaileak** (OFS, bizileku partekatua...).

## DESAFIOAK

### Bizitegien ekoizpena biztanleen eta lurraldeen beharretara bideratzea: etxebizitzak denentzat

- ▶ **Sozial eta oso sozial gehiago**, azalera ttipi gehiago.
- ▶ **Nagusitasun publiko** sendoa berreskuratu.
- ▶ Bizilekuak, **trantsizio ekologikorako** eta **elkartasun** berrietarako palanka.
- ▶ **Biztanlea**, eragile oso.



# GURE PROPOSAMENAK

## Norentzat?

- 👉 **Etxebizitza sozialen ekoizteko** anbizio handia: % 60 edo **urtean 1500, gutxienez.**
- 👉 **Etxebizitza oso sozialen** eta T1/T2 azalera ttipien lehentasuna, eta alokatzeko bitartekaritza-elkarteekiko **partaidetza.**
- 👉 **Publiko bereziak:** adinekoei zuzendu erdibideko bizitegiak, gazteei zuzendu bizitegiak, larrialdiko bizitegiak...

## Non?

- 👉 Jada urbanizatua den lurra erabiltzea, **hiria hiriaren gainean!**
- 👉 **Herrietako zentroen errehabilitazioa,** bizilekuen, mugikortasunaren eta enpresen arteko **loturak,** zerbitzuak, saltegiak, numerikoak...
- 👉 Etxebizitza mublatu turistikoen mugatzea.
- 👉 Heldu diren 15 urteetarako **lur erreserbak** egin.

## Nola?

- 👉 **Egiteko modu berriak:** hirigintza negoziatua, trantsizioko bizitegiak, espazio publiko hitzartuak, biharko bizitegien birpentsatzea.
- 👉 **Kalitatearen eta tokikoaren** alde egitea: materialen kalitatea eta manaketa publikoa, eko-diseinua/eraikuntza/berritzea.
- 👉 Parke zaharraren **berritze energetikoa** eta eraikuntzako **hondakinen berrerabiltzea.**

## Norekin?

- 👉 **Bizilekuaren eta luraren jabegoaren bereiztea:** esperimazioen hedatzea.
- 👉 Biztanleak egitasmoetan inplikatzeko (etxebizitza, eremu publikoa...).
- 👉 **Norberak bideratu errehabilitazioaren laguntzea.**
- 👉 Behaketa jarraikia, eragile eta biztanleekin.





**CONSEIL DE DEVELOPPEMENT DU PAYS BASQUE  
IPAR EUSKAL HERRIKO GARAPEN KONTSEILUA**

**Garapen Kontseiluak lurraldeko bizitza ekonomiko eta sozialeko 400 eragile baino gehiago biltzen ditu: herritarrak, erakunde sozio-profesionalak eta Euskal Herriko elkarte adierazgarriak.**

**Garapen Kontseiluak lurraldeko desafio handiei buruzko eztabaida publikoan parte hartzen du, eta bere ikuspegia eta proposamenak ekartzen ditu lurraldearen garapen edo antolaketa gai nagusiei buruz.**

**Euskal Herriko gobernantzaren eragile nagusietarik izan da 1994tik 2017ra eta, 2018az geroz, Euskal Hirigune Elkargoak bere politika publikoen laguntzeko eginkizuna eman dio. Ideia-laborategia da; gizarte-berrikuntzaren zerbitzura dago eta lurralde-dinamika berriak sortzen laguntzen du.**